



TTiPi-TTAPA

BAZTAN - BIDASOA - MALDA ERREKAKO ALDIZKARIA

1984'ko URRIA

9.zenb.



EUSKADI LIBREA EZ EZIK
EUSKALDUNA ERE NAHI DUGU.
EUSKADI EUSKALDUNA EZ EZIK
LIBREA ERE NAHI DUGU.

NON-ZER

- Berriak.
- 4 Lesaka
- 5 Ituren
- 6 Bera
- 8 Sunbilla
- 9 Etxalar
- 11 Baztan
- 16 ● Haurrak eskolara eta gurasoak
- 18 ● Orain Ekologia eta bihar zernilogia
- 20 ● Nafarroa Oinezan Tipi Ttapa.
- 24 ● Arozamena, lesakarra.
- 27 ● Olerkiak, txisteak eta bertsoak.
- 28 ● Hortzak.



ZE DEMONTRE GERTATZEN DA
EZ GAUDE INOLA ERE KONFORME.
AIZU, ORAINDIK EZ DITUGULA JASO ZURE



OLERKI , IPUIN , KOMIKI
TXISTE ETA BESTE HAINBAT
KOLABORAZIO INTERESGARRI
EZ ZAITEZ LOTSATI IZAN ETA
BIDALI HONA ZURE LANTxoAK :
TEPI- Ttapa ALDIZKARIA
"EUSKALDUNA" OSTATUA - BERA -

LESAKA

HIRIGINTZAKO PLAN OROKORRA.—

Jendeek ikusteko Herriko Etxean zabalik egon zen, alegazio multzoa sortu baita. Hona hemen Pastor Garitazelaia jaunek eta bertze batzu egindakoak. Planan ez zela inon kulturarentzako etxerik edo lekuri gordetzen zeren orain Beti Gazte dagoen etxea bota eta frontoia egiteko lekua izango zen. Udalak, Beti Gazteren etxea finkatzea erabaki zuen, kulturarentzako lekua izan bedi. Orain Laminaciones de Lesakak hartzen dituen lurak ez finkatzea eskatzen zuten, konstrukzio hauek dakarten arazoei soluzioa eman arte. Udalak ez zuen onartu alegazio hau.

Herriarentzat behar zela Laminazio-nesen barrenetik doan bidea, horrela Bittiria auzoarentzat irterabide bat izango zen, baina alegazioa ez zen onartu. Nabaz eta Auzoberrin etxeak egiteko lekua utzitzen zen eta Pastor eta bere lagunek ziotenez, lur hauek labrantzarako egokiak direlako. Ez zen onartu alegazio hau ere.

Oilartegiko bide berria zela eta baziren bi alderdi zinegotzien artean. Erabakia hartzeko botazioa egin zen. Lehendabiziko alderdia Irurzun, Urquijo eta Ayala zinegotziak defenditu zuten. Erkizia, Alzugarai, Erro, Etxabide eta Portu zinegotziak bigarrena nahiago zuten.

HERRIKO ETXEA BERRITU BEHAR DELA ETA.—

20.107.658 pzta. gastatuko dira lane-tan. Diru hauek biltzeko, Obras Públicas y Urbanismotik 12.000.000 pzta. Diputaziotik 5.664.544 pzta eta 84ko aintzinkontutik 2.443.114 pzta hartu dituzte.

SAN ANTONGO UHARKA EGITEKO BAIMENA EMAN DU UDALAK.—

668.700.421 pzta. kostatzen da. Hauetatik, ehunetik hiru hartu behar zituen Lesakako Udalak, (lege den bezala), baina


gastu haundiko lana dela ikustean eta baita Lesakako Udalaren borondate ona adierazteko, ehunetik 1,5 bakarrik hartzea erabaki zuten, hau da 10.030.507 pzta.

Harria ere behar dutela, San Antonen den harrobi batetatik ateratzea eskatu zuten. Udalak baimena eman zuen.

MINTZA

BETI

EUSKARAZ



ITUREN

EUSKAL TELEBISTA (E.T.B.) IKUSI NAHI

eta hor dabilta bertako gazteak progak egiten. Antena han eta hemen paratuz, ea ongi non ikusten den eta nonbait Mendaurreko enbaltsetik behe-raxeago paratuz Ituren ez ezik Zubietan ere ongi ikusten ahal da. Horren jakinen gainean egonez gero, erabaki hauek hartzea besterik ez da falta: Udalak zenbat diru paratuko duen, Zubietan eta Ituren artean eginen den ala ez, herriarrek ordaintzekotan zenbat ordaindu behar duten. Besterik ez. Erabakitzea falta.

Nafarroan ikusia dago, herriari interesatzen zaiona herri berak ez badu egiten, hiru da, gu geok ez bagara saiätzen, besteek... egin ordez edozein astaporrak sartuko digutela. Aurre hartu behar oraingoan ere.

ITURENEN BESTE HERRIETAN BEZALA HAUR GEHIENAK ESKOLARA JOATEN HASI DIRA.—


Iaz, gurasoek, maixu, irakasle eta Udalak bostgarren maila herri bertan egiteko eskakizuna bete zuten. Baina, aurten irakasle plaza berririk ez dute eman eta haurrak Doneztebeko Kontzentrazioa joan beharrean aurkitu dira.

Eskolaurrean azkeneko urte hauetan Susana andereñoa egon da, bera joan ondoren eskolaurreko plaza libre gelditu da berria etorri arte.

Susanari Tipi Ttapako horrialde hauetatik gure agurrik beroena bidali nahi diogu.



BUZTIN ITURRI



BERA

IGERILEKUAN ESERTO-KIAK JARTZEKO ASMOA — Egun batez, 300 lagun ailegatu ziren igerilekura joatea, ur inguruan ez zegoen egoteko lekurik. Horregaitik heldu den urterako igerilekuaren gaineko aldean eserilekuak eta haur jokoa paratzeko asmoa dago.

SALAKETA «MARMOLIS DEL BIDASOA»REN KONTRA. — Gutun bat dela medio, Ehizturi eta Arrantzale Elkartek, «Mármoles del Baztan» enpresari salaketa egitea eskatu dio Udalari, enpresa honek harrobiko ur zikinak erre kara botatzen dituela eta, Udalak baiezeko erantzuna eman zuen.

«MUNDUKO HERRI ETA NAZIO GUZTIEI, GUTUNA — Berako Udala «Munduko Herri eta Nazio guztiei» Gutunarekin elkartu da. H.B.ko zinegotziak, Jaime Elgorriaga (alkatea) eta, baiezeko botoa eman zuten, Senper, Garro eta Larralde zinegotziak (P.N.V.) abstenitzea erabaki zuten, Villa jaunak ezezeko botua eman zuen.



LABIAGA IKASTOLAK UDALARI KONTUAK ERAKUTSI DIZKIO, baita duen defizita ere, 1.600.000 pezetakoa. Bertze aldetik ere garbitasuna ordaintzeko dirua eskatzen du. Alkateren iritzia hau izan da: «Ikastola elkarte pribatu bat da, bertze hainbertze diren bezala eta Ikastolari laguntza ematen bazaio bertze aunitzeri ere lagundu beharko zaie eta adibidez edozein lantoki ere izan daiteke laguntza beharrean». Lasarte jaunak **HEZKUNTZAZ** solasten ari zirela erran zion eta orduan noski, alkateak, elkartetik elkartera desberdintasunak badaudela ulertu zuen. Elgorriaga jaunak erran zuen, Berako eskola guztiei laguntza berdina eman behar zitzaiela baita Beratik kanpo diren eskola batzuei ere. Berako gazte sail bat hoitar, ikasten dutela eta, Ordoñez zinegotziak solas egin zuen eta batez ere ikastolaren lana euskara indartzea dela azpimarratu zuen, eta hori kontutan edukitzeko. Alkateak hau entzutean: «Nahiz euskara, nahiz gaztelania edo frantsesa edo ingelesa edo nahiz Tezguzigalpako hizkuntza izan denak berdin zitzazkiola» erran zuen. Azkenean Senper zinegotziak Ikastolaren

etxea herriarena del adierazi zion alkateari eta horregaitik mantenimentuko gastuak ordaindu behar zitzazkiola.

«TOKI ONA»KO FUTBOL ZELAIA KONPONDU DA. — Baita bertako itxolak ere, Udalak urtero Gure-Txokoari ematen dion dirutik (256.000 pzt.) zati bat kenduko dio lan hok ordaintzeko. Baita Rikardo Baroja Eskolari eta Ikastolari diru laguntza ematean gauza bera kontutan edukiko du.

5.600.000 PZTA. HARTU BEHAR DITU HERRIAK DIPUTAZIOARENGANDIK. — Diru hauetatik ehunetik 40 hiltegia konpontzeko izango da. Ehunetik 30 sanitaterako eta bertze ehunetik 30 elektrifikaziorako izango da.

CHANTRE-K AUZOARI EMATEN DION LURRAREN MUGAK BADA KIZKIFU. — 4.200 m2 dire. Iparaldetik bigearekin mugatzen du, hegoalde



amildegirekin, ekialdetik baratzetako bideekin eta mendebaldetik karririkarekin.

ZENTSURAZKO HIGITZEA.— «Festivales de Navarra» zirela eta. Berara etorri ziren Landesetako dantzariak eta haiei laguntzeko etzen izan udalako inor. Kulturiko batzordean dagoen Pello Ordoñez, errudunetz hartu zuten Udalak, eta nahiz Pello berak errua ukatu, zentzurasko higitzea onartu zen. Istiluak izan ziren puntu honetan. Pellok eta bertze zinegotziak gaizki eginak eta ezeginak mahai gainean paratuz.

ETXEKOANDREEK ERE LANPOSTUA NAHI.— sei emakume eskeini dira Rikardo Baroja Eskola gartzeko. 60.000 pezeta inguruan zebiltzan aintzinkontuak, batek bertzera bi edo hiru mila pezetaren diferentzia. Azkenean, lehengo urtean aritu zirenei ematea erabaki zuen Udalak. lana agitz ongi egin zutelako.

ENDALTSAKO MENDIETAN HERRIAK DITUEN PINADIAK ATERATZEKO LAN HANDIEC IA EGIN BEHAR.— Pinadira kamiobiderik ez dago eta pista berria egiteko hamar aunitz dinamitatu behariko zen. Lan honen gustaria pinadiak balio duen baino gehiago izango zen eta horregatik ez du bererik.

IKERKETA BAT EGITEN ARI. SEMAFOROAK ETA ZERABIDEAK PARATZEKO.— Semaforo eta zerabideak paratzeko Udalak Diputazioari ikerketa bat egitea eskatu dio.

EUSKARARENTZAT GARPANTZIZKO LAN BAT.

Labiaga Ikastolako irakasleek 2. etapako hiru testu liburu euskaratu dituzte S.M. Editorialak argitaratuko ditu, eta etapa bererako bertze liburuen itzulpena ere eskatu die. Abudo behar direla eta, hortxe ari dira Ikastolako irakasleek jo ta ke lanean.

5.000 LANDARE ESKATU DITU UDALAK DIPUTAZIOARI.

IAMOT-

eneko putzuko amorrainak.— Hara elkarrekin zer ikusterik duten «Bordatxok» eta lamoteneko putzuko amorrainak: biok erre kiskali egin direla. Hori bai, desberdintasun nabarmenak ere badituzte: 1.— Bordatxon sua izan dela kiskaltzailea eta errekan ur-lejiak. 2.— Errekan amorrain zaharrak bakarrik hil direla eta Bordatxon ez da inor hil, bainan jendez betea zagoelarik gerta baldin bazen ez zirela ez zahar eta ez gazte libratuko. 3.— Zortzi minutuz Bordatxo erraustuko zela, erreka amorrainan heriotza zenbat iraun zuen ez dakigu ez eta haien «emergentziako irteerak» funtzionatuko zuten ala ez, bainan bietatik bat bereiztera bortxatua banintzen (agian ez naizen egundaino horrelako hestualdian aurkituko) erreka joko nuen dudarik gabe. 4.— Behar diren neurriak hartzen ez badire, berriz ere gauza bera gerta daitekela nahiz bat eta nahiz bertzean. Holako batean haxe bai, erreka amorrainak errez herrituko ziren bainan Bidasoa bazterretako gazteek, zer...?

JULIO CARO BAROJAK HARRITU EGIN GAITU.

Julio Caro Baroja, antropologoa eta historialari ospetsua, batez ere euskal kultur bultzatzaile, Beran bizi dela eta harro gaudie Beratarrak; orain urte batzuk Omenaldi bat egin zitzaion ere. Jakintsu bezain langilea da ia adin puska duen gizon hau denen barrena ibiltzen da harat-honat bere ikerketak erakusten. Hemen ere, Beran kultur-hazia ereiten du. Euskal Herria barrena bidai kulturalak zuzentzen ditu. Bai egun ederrak, Juliorekin Nafarroa, Errioxa edo Gipuzkoa ezagutzen!



Caro Barojaz solaster ari gerala eta, aipatzea badago ere azken argitaratu duen bere liburua «El laberinto vasco» arrakasta handikoa. Zenbait euskalzale eta abertzale harrিতa gelditu gara liburua irakurtzean, Euskal Herria ezagutzen ez duen batek idatzia bezala dirudielako. Ez dugu hala ere dudatan paratzen Caro Barojaren Euskal Herriarekiko maitasuna, baina hori bai harrিতa gelditu gara.



KOLDO ETA KATTALIN

zebrabide: paso cebrak
ikerketa: io
irakasle: profesor
igerileku: piscina
gutun: carta
salaketa: denuncia
entrepesa: empresa
baldintza: condición
txosten: nota
nabarmena: notable
irteera: salida
ospetsu: famoso
argitaratu: publicar
arrakasta: éxito.

iritzi: opinion
elkarte: sociedad
adibidez: por ejemplo
hezkuntza: educación
ulertu: entender
azpimarratu: subrayar
gaztelania: castellano
zinegotzi: concejal
hiltz: matadero
ekialde: este
mendebalde: oeste
higitze: moción
batzorde: comisión
aitzinkontu: presupuesto



SUNBILLA

ETB IKUSTEKO MODUA.— Azkenean Sunbildar talde baten harat honatak ez dire alferrik izan: Sunbilla etxe gehienetan Euskal Telebista ikus daiteke gaur egun, eta baita Espainiko telebistaren 2. katea ere. Hau da talde honen lanek eman duen fruitua, baina... ez da erreza izan.

Euskal Herriko hiru probintzitan telebista euskeraz ikusi eta entzun zitekeela jakin gendun ezkerok, hemen ikusteko ere ahaleginak egiteko kezka sartu zitzaigun. Uste baitugu euskaldun herri batean, bere komunikazio bideak euskeraz izatea beharrezkoa dela.

Kezka honekin hasi zen taldea mugitzen eta lehenengo pausoa telebistatako tekniko bat deitu eta probak egin ia ikusteko modurik ba ote zen izan zen. Tekniko hau etorri zen eta egun batez Sunbilla inguruko mendi kaxko gehienak pasa eta gero erresultadua nahiko penagarria izan zen. Tekniko honek bere aparatoen bidez ikusi bait zuen inon ere ez zela seinalerik hartzen. Hala ere ez gendun etsi eta hurrengo egunean Bulatseki eta Artaleku tarteko kaxko batean probak egiten ari ginela agertu zen ETB-ren imagina. Hura poza!! Bainan hasiera bertzerik etzen. Nahiz eta han ikusi, herrian eta baserrietan ikusteko, errepetidore baten bidez seinalea bidali egin behar zen, hortarako mendi puntaraino argindarra eraman behar zen, eta azkenean honek denak diru bat balio zuen: 400.000 pezeta.

Honela bada, diru hori biltzeko lanari ekin zitzaion. Talde batek, laguntza emateko prest egongo ote ziren galde eginez, herri gehiena pasa zuen eta erantzuna ezin hobea izan zen.

Udalera ere eskaria egin zen eta honek hau erabaki zuen, lau boto alde eta hiru aurka izan zirelarik:

—ETB ikusteko sunbildarrak daukaten eskubidea errekonozitu.

—Errepetidorea jartzeko lanaren ordainketaz kargu egin, eta garbi utziz udalaren diru aldetikako estutasunak ikusirik, ordainketa hori egiteko herriaren laguntza eskatzera beharturik egongo dela behar bada.

Honela ekin zitzaion instalaketa lanari, hor ere izan dira nahiko komedi, seinalea nahiko murrizta izaki, eta ezin ongi ikusi etab. Hala ere gaur egun arazo gehienak konponduta daude, eta hasieran esan dudana, ETB ikusten dugu.

IKASKUTZAREN HASIERA.— Beste lekuetan bezala sunbildar haur gehienak ere beren ikasturtea hasi dute. 6-7-8. urtea egin behar dutenak Doneztebeko kontzentrazioan eta 1-5. bitarte herriko eskoletan.

Bestekin batean hasi ez direnak eskolaurreko umetxoak izan dire. Urtero bezala aurten ere hauek beren arazoa izan dute. Alde batetik, Diputazioak bidali behar zuen maisua edo irakaslea ez du oraindik bidali eta bertzetik, eskola berritzeko obrak au-


zolanez bukatzen ari dire. Espero dugu bi arazoez agudo konponduko direla.

HEPATITIS EDO GIBELEKOMINA.— Berri txar bat ere badugu. Azken egun hotan hepatitis edo gibeleda mina zabaltzen ari da sunbildarren artean. Dagoeneko 15-bat lagun izan behar dute eri daudenak, gehienak 14-16 urtekoak, eta talde berean ibiltzen direnak. «Añesti» peña-koak hain zuzen. Gaitz hau oso kutsakorra izanik ez da batere harritzekoa lagun artean jendeak harrapatzea.

Nundik etorri zen gaitz hau? Ezin jakin. Sanitateko gizonak hartu dituzten muestrak analisisia egin arte beinipein.

Dena dakitenek betikoak dira, badakizue zein... herriko sasijakintsuak. Hauek diotenez Abuztuaren hasieran euskaraz ikasten, herrian egon zen AEK-ko taldeak ekarri omen zuen gaitza. Leikena da bai, ingelesez ikastera etorri balira ez zuten ekarriko bainan... euskaraz ikastera datozen hauek... Aj! edozein gauza.

Nik zera diot... horren buru argiak eta sudur zorrotzak eduki ikertzeko eta nola dauden jende horiek oraindik hemen. Beren lekua Ministerio batetik gora legoke, Madrilgoa alegia...



aska.



askatasuna



askatasuna hilezina da.



ETXALAR

DESFILE «ZEN» OKRA-TAK.— Garai honetan nahiko zelebrekeria ikustera (ohituratu, bideratu) gaituzte. Gaurkoan gure herrietan, (herriko bestetan, e.a.) ospatzen diren desfileaz ausnartuko dugu. Seguraski horiek ez dirella izanen ZENokraziaren ondorio mingarrienak baina hala ere, beren garrantzia ukazina da. Alkateak pertsonalki konbidatzen ditu herriaren aurrean bere nortasuna nabarmentzeko. Zertarako argitasun gehiago?

Herriko jauntxoak eta bertan ditugun poliziguardizibil-en buruzagiak besotik elkartuak dabilta. Bai amodio liluragarria beurena! Gurekin berriz posible ezin... Baina ez gara horregatik penatuko, ez noski. Gaurko erreallitate samin honetan, zentzu minimo bat daukatenentzat, normala da horrelako desfileak boikoteatzea. (Herri Taldeko zinegotziak, txistulari dantzariak, e.a.) ZENokraziaren defendatzaileak beren sorterrira itzuliko balira, bai poztuko ginatkeela dudarik ez! Ez dugu ZENokraten neskato izan nahi.

PIXAZ KUTSATUTAKO ERREKAK.— Pixatiak izatea edo ez, ez dago gure eskuetan, ez noski. Bainan arazoa ez da hori soil-soilik. Denok ezagutzen dugu zein arrakasta handia izan duen gure baserrietan, zientziaren aurrerapenak. Bizimodu errazagoa eta hobegoa lortu baita, iragan diren urteekin konparatu behintzat. Bainan ageri denez gure baserri modernoek badituzte ere beren akatsak. Horietatik bat zera da: erren kutsadura. Behitegi haundi horietan sortzen diren zikinkeriei irteeraren bat eman behar zaiela eta hobi aseptikoak eraikitzea gogoratu zitzaizen. Honeraino ostoporik. Prolemak hobi aseptikoak betetzen direnean asten dira. Dirudienex pixak eta ur zikinek belatietan edo mendietan zabaldu baino errezagoa da erreketara botatzea.

Eta jakina, udaran erreketan ur gutti eta pixka aunitz; eta ez hori bakarrik, gure erreketan bizi ziren, amorrai ederrak oporretara joatea behartu dituzte. Betiko, auskalo! Dirudienex bai.

Amurruinak bai, kutsadurarik ez!!

URRIAREN 21-AN DENOK ETXALARRERA!— Ohi den bezala aurten ere ospatuko dugu Ikastolaren alde, Usategietako Igandea. Eta nola ez, besta giro jasanezinarekin! Ikastolak ospakizun hau antolatzerakoan bi helburu ditu burutan: alde batetik urteko preşupostoa betetzeko behar den diru laguntzaren zati bat lortzea eta beste aldetik, euskal kultura dela medio, besta egun eder bat ospatzea. Horrez gain eta iturri onetatik adierazi digutenez, hego aldeko haize epelaren laguntza estimagarria ere aseguratua daukagu. Zeru urdin liluragarrian, goi-goian, milaka uso libre hegoalderantz hegazka ikusteko aukerarekin. Uso eder horiek bezain gora ikusi nahi genuke egunero, gure EUSKARA.






BAZTAN

BAZTANGO UDAL-IKASTOLA EGOERA KAXKARRERAN.

Aspalditik daukaten arazo berberari, ez zaio oraindik soluzio egokirik eman nahi izan. Ikastolaren 15 urteko ibilaldia horrelakoa izan da beti, 226 ikasletik 120, euskaraz ikasteko leku egokirik gabe daude mementu honetan. Hauek, Elbete-ko eskolan prestatu dizkieten 6 ikasgela-tan hartzen dituzte beren klaseak, baina oso kondizio txarretan. 3. mailatik 8. mailaraino diren 120 ikasleentzat 119 metro kuadro besterik ez dituzte-larik. Horregatik beharrezko lekurik ez dagoenez, klaseak txandaka ematen dira, orain batzuri gero besteri. Batzuk klasean diren bitartean besteak kalean leku faltaz. Inoiz behin frontoian bertan klasea.

Horri buruz, ikasleen gurasoek ahaleginak egin dituzte soluzio iraunkor-
rak eta egokiak lortzeko, baina azken urte hauetan Udaletxearen jar-
rera¹ ezezkorekin² ere topo egin
dute. Jakina denez UPN-ko jendeak
kontrolatzen dute Baztango Udalet-
xea, eta berauen jarrera¹ oso negatiboa
izan da, mila eragozpide³ jarritz
Udal-ikastolaren arazoei.

Hara nola, Udal-ikastolako ikas-
leen gurasoek, arazoari irtenbidea⁴



Elbeteako frontoia «eskola publiko» bilakatu zaigu.

aurkitu nahaiez, Elizondoko karrike-
tan ezarri zituzten pankarta errebin-
dikatioak, Julio Iturraldek, udalzai-
nen⁵ bidez erretiratu zituen. Ondoren
eta Herri Taldearen mozio baten bidez
Ikastolako ordezkariak udal-sesioan
aurkeztutako eskaria ez zuten ezta-
baidatzeko ahalbiderik⁶ ere izan. Di-
rudienez, bertan Ikastolako guraso
ugari zegoen eta Iturralderi ez zitzaion

atsegin berauen eskariei inolako kon-
ponbiderik ematea.

- 1.— jarrera: actitud.
- 2.— ezezkor: negativo.
- 3.— eragozpide: impedimento.
- 4.— irtenbidea: salida, solución.
- 5.— udalzaina: alguacil.
- 6.— ahalbide: posibilidad.

GAUPASAK ERRATZUN

Hona hemen XORROXIN IRRATIAKO lagunek
antolatutako ekitaldiak.

Urriak 13, LARUNBATA

Gaueko 11 etan

- El grupo que toca en Mugaire y llueve
- Barrikada
- La Polla Records

Urriak 20, LARUNBATA

Gaueko 11 etan

- Ekaitz
- Itoiz

Ongi pasa.

Xorroxin Irratia askatasunaren aldeko hotsa.

Urriak 21, IGANDEA Zaharren eguna.

- Egurdiko 1 ean zaharren bazkaria
- Bertsolariak
- 7etan. Antzerkia, (Toberak, ORTZA-
DAR TALDEA)

● Ekaitz

Urriak 27, LARUNBATA

Gaueko 11 etan.

- Hertzainak
- Zarama.

Urriak 28, IGANDEA

- Antzerkia, Daniel Landarten Taldea,
«Xirrixti Mirrixti».



ELIZONDO

Jauntxo «navarrero» ak Baztandarren Biltzarraren aurka

Nafarroa Euskal Herria. Baztandarren Biltzarra 84.
Giro ederrean ospatu zen Irailaren 9an aurtengo Baztandarren Biltzarra,
bertako Udalean nagusi dire eskuindarrek ezarritako boikot ofiziala
neurri haundiz gaindituz. Hamar bat mila lagunetan zifratzen zuten
antolatzaileek Euskal Herriko alderdi guztietatik Elizondora bildutako
jende multzoaren kopurua.

Larunbata arratsaldean hasi zen 1984ko Baztandarren Biltzarra, zazpi t'erdietan herrian zehar egin ziren kalejirekin. Eta gaueko hamar t'erdietan, Mikel Laboaren kantaldia. Jende pila haundi bat izan zuen entzule. Ondoren, «Oihana» taldeak

alaitu zuen larunbat arratseko dantzaldia.

Oraindik parrandaren oihartzuna ixildu gabe zegoelarik, Guardia Zibilak hiru baztandar gazte detenitu zituen: Joseba Igarabide, Trini Barrenetxea eta Juanjo Erregerena. Geroztik jakin denez, herri-

ko norbaitek sartutako denuntzia batengatik. Igan-derako bi askeak utziak zituzten eta hirugarrena, Joseba Iragabide, Iruñera eramana.

Igandea berriz, herri meza batez eman zitzaion hasiera egunari, goizeko 9,30etan. Eta eguerdiz orga aipanduen¹ eta dantza taldeen desfilea hasi zen. Desfilea mantso samar joan zela erran behar, baina zer ikusirik bazen eta jendea gustora egon zen espaloietatik² begira. Karroak urtero bezela nahiko folklorikoak ziren, baina hala ere, ez zen baztandar presoentzako aipamenik ere falta.

Udaletxean, ezta leihorik ere zabalik

Zazpirehun bat pertsonak hartu zuten parte desfilean. Musika eta dantza talde asko inguruko herrietatik eta beste probintzietatik etorriak. Arizkun, Bera, Lesaka, Etxalar, Elizondo, Zangotza, Funstiñana, Tuter, Iruñea, Burlata eta Lizarrako musika eta dantzari talde nafartarrak. Gipuzkoatik «Intxaurrendotarrak» fanfarria eta Oñatiko dantzariak. Ipar Euskal Herritik berriz, Xuberoako Urdiñabekoak, Donibane Garaziko txaranga, Lapurdiko Arbonakoak eta Baionako Or-Konpon txaranga.

Maurizio Elizalde eta Felix Iriarte izan ziren urtero bezala, desfileari hasiera ematen ziotenak. Elizondoko kale guztiak berriz, ikurriñaz, Baztango eta Nafarroako banderaz apaindurik agertzen ziren. Parkerako bazkalekura joaten zen uhalde osoa Udaletxearen aintzinetik pasatzen zen. Baztango udaletxeak aldiz, leiho eta ate itxiekin erantzuten zien han bildutakoei.

Jauntxoak, Baztandarren Biltzarra boikoteatu nahi izan zuten

Mesprexu³ haundiagoz jokatu dute aurtengoan Baztango jauntxoek morroiek, eta Baztandarren Biltzarrari babes ofizial⁴ bat ematea proposatu delarik, edozein laguntza ukatu dute. Egun hori herri mailako besta ofizial izendatzea errefusatu dute lehendabizikoz eta ez hori bakarrik, desfilearen aurrean joan zedin bailarako bandera eskatu denean, horri ere ezetz erantzun diote. Eta hirugarrenik, antolakizun bat izorratzeko dagoen sitemarik onena: Bi miloi eta zortzirehun mila pezetako presupostua duen egun bati, 75.000 pezetako subentzio bat eman.

Baina ongi erantzun du jendeak boikot guztiaren erdian, hala nola hamar bat mila lagunek mintzo ziren antolatzaileak. Bazkal orduan berriz, 1.800 lagunentzako prestatuak ziren mahai guztiak bete zi-

ren ordu bietatik aurrera. Salda, piperrada, zikiroa eta euskal pastela. Giro galanta jantokian eta operazio politiko gainetik Herri bat dagoela konstatatzea. Urtero bezela aurten ere organik apainduenari ematen zaion saria ere bazkalondoan jakinerazi zen, eta aurtengoan Gartzaingoarentzako izan da

Preso eta errefuxiatuak gogoan

Baztandarren Biltzarraren antolatzaileek agiri⁵ batean ederki esplikatzen zuten, Baztandik urrun joatera behartuak izan diren herritarrak ez dira ahaztu behar. Aunitz, lan faltaz joan direnak. Beste batzuk berriz, espetxe⁶ espainoletan preso direnak: Fernando Arburua eta Fermin Antzizar. Eta aurreko goizaldean eramandako hirurak azkenik; horien oraitzapenezko pankartarik ikusi ahal izan zen goizeko defilean.



Goizaldean Guardia Civilak harrapatu zituen baztandarrak ez zituzten ahanzi beren lagunek

Eta arratsaldean, sei t'erdietan, manifestaldia egin zen Elizondoko kaletatik zehar, «Extradiziorik ez» lelopean. Aurreko astean errefuxiatuen egoeraren inguruan kontzientziatze lan bat eginen zelarik. Bezperatik guardia zibil ugari ageri zen inguruetan eta Elizondo bertan, eta igandean bertan ere herriko sarrera guztiak ongi kontrolaturik zeuzkaten. Hala ere, ez ziren manifestaldian agertu eta

pakean bukatu ahal izan zen.

Ilunabar aldera oso pozik ageri zen jendea, Baztanaldekoak batez ere, egunak eduki zuen arrakastagatik⁷. Duela hogeitaz urte «Fiesta Vasca» bezala hasi zen ekitaldi⁸ hau azkenean politizatuegi suertatu zaie nola edo hala beren agintea mantendu nahi duten jauntxo nabarreroei, eta alde guztietatik

boikoteatzen saiatzen dira. Baztandarren Biltzar on bat egitea nahiko garaipen bazen, zer errenik ez errefuxiatuen aldeko manifestaldia egitea. Inguruko probintzietako eta herrietako jendeak etxera abiatuz zihoazen bitartean, «Arkaitz» taldeak goxatzen zuen azken dantzaldia.

Hiztegia:

- 1.— Orga apaindua: Carroza.
- 2.— Espaloi: Acera.
- 3.— Mesprexu: Desprecio.

- 4.— Babes ofiziala: Ayuda oficial.
- 5.— Agiri: Documento.
- 6.— Espetxe: Cárcel.
- 7.— Arrakasta: Importancia.
- 8.— Ekitaldi: Actuación.


Hiru baztandarrekin elkarriketa

Azken urteotan bestaren gora beherak ederki ikusi dituzten hiru baztandarrei, galdera bat egin diogu. Hirurek badute zer ikusirik besta honekin, bakoitzak arlo ezberdinetan¹. Eta berehalaxe erantzun digute beren iritzien berri emanez.

Baztanaldean instituzio bat den, Mariano Izeta, horrelaxe mintzatu zitzaigun:

Ttipi Ttapa. Zer iruditu zitzaizun urte honetako ospakizunak?

Mariano Izeta.— Ongi, oso ongi. Xarmanki iragan zen egun eder hori. Ez zuen deus inbidiatzerik bertze urtetakoei. Antolatzaileak primeran antolaten dute besta, haninbat dantzari eta musikarekin. Ongi ongi. Baztandarren Biltzarrak antolatutako ospakizunak behintzat ongi izan ziren, bertzeak berriz...



Martin Garde, orga apainduen arduraduna² eta ikuskizun³ guztien koordinatzailea.

TT.TT. Nola ikusi duzu urte honetako Baztandarren Biltzarra?

M.G.— Beno, alde batetik herritarren erantzuna oso positiboa izan da, baztango herrietako gazte guztiak elkartuz ospakizun eder hori aintzinerat ateratzeko. Behar bada zerbait akats izatekotan diru aldekoa izan da, subentzioa, errifak eta... Dena dela momentu honetan kontuak ez ditugu arras garbituak, bainan kotxea ordaindu eta oraindik zerbait gehiago ere geratzen zaigu.

Joseba Igarabideak ere bere erantzuna eman zigun; bera izan zen zozketaren arduraduna.

TT.TT. Zuk zer erran dezakezu Baztandarren Biltzarrari buruz?

J.I.— Aurtengo bestaz ez dut deus erraten ahal, detenitu nindutelakoz baina Baztandarren Biltzarraren Elkartear zertxobait erran nahi nuke.

Baztandarren Biltzarrera deitzen denean jendea besta egunaz oroitzen da, eta hala izan da azken urte hauetan. Baina, atzera begiradaxo bat botaz gero Baztandarren Biltzarraren hasiera eta eboluzioa ikusiko dugu. Hasiera batean besta zen baina, denbora guttira, euskaltzaleek eta Francoren kontra zeudenek Baztandarren Biltzarrari beste bide bat eman nahiean elkartu eta Baztandarren Biltzarraren Elkarte sortu zuten. Elkarte honen bidez, une bakoitzeko arazoei erantzun politikoak ematea lortu nahi zen.

Talde politikoak sortu zirenean, Baztandarren Biltzarraren Elkartea zentzu hori galdu zuen baina kultur aldetik bizirik jarraitu zuen (aste kulturalak antolatuz eta abar).

Azken urte hauetan berezitasunak eta desberdintasunak apalduta utzi dute Elkarte eta horrek sortzen ahal zuen mogimendua. Hori dela eta, azken urte hauetan Elkartea besta eguna besterik ez du antolatu.

Baina une honetan, berriz «bagarela» erraten ahal dut. Jende mordoxka gara Elkarteari bizi kultura eman nahi diogunak eta batez ere Baztanen dagoen hutsune handia ikusi ondoren. Eta bai, besta ere beharrezkoa da euskal giroa aberasteko.

A! eta zozketa irabazi duen zenbakia. 3.437 da.

- 1.— Arlo esberdinak: Diferentes actividades.
- 2.— Arduradun: Encargado.
- 3.— Ikuskizun: Espectáculo.



ERREFUXIATUEN ALDEKO MOBILIZAZIOAK BAZTAN BIDASOAN.— Errefuxiatuen aldeko mobilizazioak izan dute ere, bere oihartzuna gure zonaldean. Hortarako zer ikusi haundia izan zuten, Baztan Bidasoako amnistiaren aldeko batzordeak egindako deiak eta sensibilizazio kanpainak. Urrengo lefroetan, irailan iragan ziren zenbait ekintzen berri edo bilduma azaltzen dizuegu.

Baztandarren Biltzarraren egunerako, irailak 9, zabaldu zen, Elizondon manifestazio bat egiteko deialdia. Aurretik, kontzientziatze lan ugari eginez (pintaketak, zenbait bilera, kartelak, oktabilak,...e.a.). Manifestazio horretan, zortzirehun bat lagunek hartu zuten parte. Nahiz eta eragozpide eta probokazioak ez faltatu, (hiru lagun bart gauean detenituak), manifestazioa inolako prolema-rik gabe bururatu ahal izan zen.

Irailaren 14ean berriz, itxialdi edo entzerrona bat egin zen Lesakako Udaletxean. Berrogei bat lagun bildu ziren bertan. Egun horretan, Lesakako Herri Taldeak errefuxiatuen alde aurkeztutako mozioa, ez zen onartua izan.

PNVkoek kontra agertu ziren. Mozio bera aurkeztu zuten Berakoek, mozioa aprobataz.

Bestaldetik irailaren 21ean, Herrera de la Manchara deitutako bidaia zela medio, Irungo hamar lagunekin batera, autobus bat antolatu zen Herrerara joateko.

Irailaren 23an, Frantses gobernuak, hiru extradizio eta lau deportazioekin erantzuten zion, Euskal Herri osoan errefuxiatuen alde egiten ari ziren mobilizazioei. Horregatik, irailaren 28ra egindako greba orokorraren deialdia, 26era aurreratu zen.

Egun horretan ekintza ugari bururatu ziren. Ia goiz goizetik zenbait errepide edo karretera pasorik gabe zeuden, (Igantzi, Lesaka,...). Laminazionesko autobusak ez ziren beren orduetan ailegatu, gurpilak zulatuak zituztela eta. Ondoren, lantegi horretako langileak ere greba egin zuten. Bankoak ez zituzten beren atekak ireki ahal izan, zerrailak, silikonaz beterik bait zeuden. Beran ere zenbait lantegi gelditu ziren (Palmadera, Gurea eta Alcon

berriz, sei botoengatik ez ziren gelditu). Etxalarren ez zen esnerik bildu. Eta azkenik arratsaldeko zortzietan, berrogeita hamar bat lagunek kontzentrazio bat egin zuten Lesakan.

Agian, irailan zehar iragan diren mobilizazio hauek, Baztan Bidasoako herri- eta ezker abertzaleko organizazioak sendotzeko, urrats edo pauso bat aurrera izan dira. Hala bedi.





HAURRAK ESKOLARA

ETA GURASOAK...

Eskolak hasi bezain agudo esaldi hauek entzuten hasi naiz:

— Hau pakea haurrak eskolara bidaliz gero!
— ze lasaitasuna haurrak eskolan diren bitartean!

Ba bai, hala izan behar du ama horrentzat, hala adierazten du behinik behin. Edozeini erraten diolarik ere, arrazoi emanen dio: — Haur bihurri horiek!!!

— Bai, haurrak beti ere ze asma egoten bait dira.
— Haurrak lana besterik ez du ematen.

Eta, ama hori «lasai» gelditzeko edo eta «pakean» egoteko eskubide osoa duelakoan geldituko da, haurrak eskolara bidali ondoren.

Baina, egoera hau ez da hain sinplea, honek zerbait izkutatzen du.

Haurrak, kasu egiteko eskatzen du, berarekin jostatzeko, solasean egoteko.

Haurra, ttikia delako edo eta oraindik ikasi ez duelako, gauza aunitz pertsona nagusiek egin behar diote, beraz, pertsona horien beharrean dago.

Haurrak arriskua non dagoen ez dakienez gero, neurri batean bere gain egotea eskatzen du.

Haurra, pertsona delako eta heldutasun bidean joan dadin, laguntza eskeini behar zaio, ez dakien a erakutziz, bere galde moduei arrazoizko erantzunak emanez; hain zuzen ere, bere buruaren jabe izan dadin eta aldi berean askatasun bidea ikas dezan.

Ez da gauza erratea: «gu izurratuak izan ginen eta ondorengoak ere izan daitezela». Hortarako seme-alabak mundura?

Eta, noski, ekarriz gero gauza horiek betetzea edo aintzinara eramateak denbora ez ezik ilusionea, gogoia eta abar eskatzen du; eta ez hori bakarrik, baizik eta pertsona nagusi horiek bere buruaren jabe izaten eta askatasun bidea egiten jarraitu behar dute, eguneroko borroka horretan aritu behar. Bertzela, zertarako haurrak mundura?

Herri hauetan, emakume gehienak etxeko lanak egiten gelditzen dira (ez dute bertze aukerik ere), gizona berriz fabrikara joanez gero, etxeko lanak ez ezik sotukoak, baratzakoak edo eta txerritegikoak emakumearentzat gelditzen dira. Eta, normalean emakumea izaten da haurretaz arduratzen dena, hau da: AMA!!!

Gizona aldiz, bere lana egin (gaur egun lanik baldin badu) eta bere gustoko gauzetan arituz betetzen du eguna, hau da: (ordu gutxi batzuz) aita da.

Emakumeoi, AMA izaten erakusten digute. «Ama beti ere AMA baita!!!» eta horrek nonbait dena expikatzen du, hau da, AMA izatetik aparte ezin duela bertze ezertxo ere izan.



Emakumeei, AMA izaten erakusten digute,

Eta, haurrak, ama ez ezik


aita ere

Eta noski, amaren uda luze-luzea pasa eta haurrak eskolara bidali ondoren ez da harritzekoa hasierako: «hau pakea!!!» entzutea edo eta eskerrak ematen aritzea eskola asmatu zuenari. Hau ez da kontua, haurrak eskolara bidali eta « hor konpon Maria Anton » erratea (hor ere eskolako giroan gurasoak zer eginik badutelako hain zuzen ere).

Egoera honetan, emakumeak badu zer eginik, betiko moduan ez badu jarraitu nahi, hau da, itoa eta eskola noiz hasiko den zai atsedean pizka izateko.

Eta, haurrak, ama ez ezik aita ere baduela kontutan hartu behar du; eta, aitak, seme-alabak baditula eta horietaz arduratu behar duela; eta, gizarteak, amari bezala aitari eman behar diola bere egin beharra; eta, amak..., bere bizian ama izatetik aparte emakume eta pertsona dela gogoratzen hasteko ordua du, norberak bere burua gehixeago indartu eta bere jabetasuna lortu. Eta hori, bakarka zaila denez gero, elkartasunean lortu beharko dugu.

A.Z.



Orain ekologia bihar zerrilogia

—Arrantzaleak kexu daude ez baitute ikusten lehen bezala izokirik jauzika. Baina arrantzaleak zer egin ten dute horrelakorik gehiago ez gertatzeko? Gure ustez onean deuserez, hori da: bizirik gelditzen diren erreka arrain guztiak ateratzen dituzte inolako errespatorik gabe. Zertaz ez urte batzuetan gure Bidasoa maite, zaindu eta gero berriz arrantzan hasi poliki, poliki?

Hor dago koxka oihu ederrak baina ezer moldatzen ez. Tenporada edo arrantzaldia delikan denak arrantzari ematen diote, eta gero udan batzuek belarretan besteak itzalean lejiakin erreka erretzen dituzte. Egoerak soluziorik ez daukalarik amorrainik ez dagoela oroitzen gara.

Gizonen menga eta temoskeriak azkenean beti naturak kobratzen ditu.

Horregaitik gizona omen da bi aldiz harri berean zipotzen den abere edo animalia eta gainera hirugarren aldiz zipotzeko ere prest dagoena.

Orain dela urte batzuek gizonen arteko menga baten erruz Garatako erreka kixlalia izan zen. Min hori naturari egin beharrean zergatik ez diogu elkarririk egiten? Gizonen menga eta temoskeriak azkenean beti naturak kobratzen ditu.

Goazen orain beste arazoekin. Pertsonekin sartu garenez gero, sar gaitezen gizonaren aspaldiko arazoekin: Hau da natura hondatzen ari gerala.

Lehen gizonak bere janaria nonbait aurkitu behar zuen eta ehizia zen bere jateko bidea.

Urte aunitz igaro dira eta gizonak ez du ea jateko bakarrik hiltzen, larruak eta gainerako gauzak saltzeko baizik, sistema kapitalista honetan azkeneko helburua «dirua» delako.

Gizonak ez du ia jateko bakarrik hiltzen.

Aspalditik gizona natura esplotatu besterik ez du egin, bere ondasuna biltzeko eta dirua irabazteko; behinere ez da saiatu naturari laguntzen.

Herrialde honetan ehiztari asko dago eta ez dute onartzen gazte batzuk animaliak, usoak adibidez bukatzen ari direla esatea. Izaki aunitzi bezela espezie honi ere bukaera iritxi zaio gure egunetan. Eta beti bezela katastrofearen ondotik soluzioaz eta moldaketaz oroitzen gara.

Betirako galtzen denean, astoak lau hanka ez dituela ikusiko dugu gehienetan bi baizik.

Gaur egun uso baino eskopeta-kainoi gehiago ageri dira, zertara joaten dira orain ehiztariak men-



dira? Txabolan lagun artean kopa edo afari eder batzuk egitera, tarteka pasatzen diren txori gizara-joak erretzera, eta bidenabar mendi guztia zikintzera. Kartutxotan gastatzen diren diruak usoak eta beste abereak zaintzen jarriko balituzkete, orain uso eder aunitz ikusiko lirateke nonahi.

Gaur egun uso baino eskopeta-kainoi gehiago ageri dira, zertara joaten dira orain ehiztariak mendira?

Lehen gure zaharrek mendian bitxo ederrak ikusten omen zituzten eta orain non daude? ehiztari amurratu baten etxeko hormari iratxiak. Ez zaizue iruditzen grazi gehiago dutela kanpoan lasterka dabiltzalarik? Eta gero joanen dire herri edo hiri batera, txartela ordaindu ondoren basahuntzak eta basurdeak ikustera. Astokeria gogorra benetan gasolina ere garestia bait dago. Hobeki lukete goizean oilarrarekin batera ohetik jeiki eta ederki gosaldutik kanpora ateratzean, atariko loreak jaten ari den basahuntz eder bat ikusiko balute; edo ondoko ariztegiaren basurde gauaz muturka aritu delako utzi duen arrastoari begiratu behar balute.

Zeben eskopetak disparatu beharrean dispara ezazue kamara bat eta buru usaindu bat horman izan beharrean izan ezazue argazki eder eta garbi bat gelako horman zintzilikan; gainera merkeagoa aterako zaizue. Ehiztarien hilabetea beharrean argazkilarien hilabetea izango duzue. Hiltzaile edo «asesinoen» hilabetea beharrean arrosaren hilabetea izan dadila. Edo baita ere naturaren urtea. Safari bat baino zoragarriagoa izanen duzue, eta Afrikarako pasaje edo txartelaren diruarekin afari eder bat egingo duzue ostatuan azindak etxe ondoan ikusi eta balakatu ondoren.

Zeben eskopetak disparatu beharrean dispara ezazue kamara bat eta buru usaindu bat horman izan beharrean izan ezazue argazki eder eta garbi bat gelako horman zintzilikan.

— Errealitatea beltz ikusten dugu gaur egun eta zuen eskuetan **dago azken hitza**. Bakoitzak eman diezaiola lan **honeri bere bukaera**, baina egia esan, gure bukaera oso pesimista da edo euskaraz hobe-kiago ulertzeko urak zikinak ikusten ditugu.

Hemendik urte batzuetara zer nahi duzue ikusi?

— Zikinkeriaz betetako errekek, pildorazko janaria, edo gaur eguneko leku eta xoko garbi eta amor-ritz betetako errekek edo baratzeko landare freskoak? Erabakia zuen eskuetan uzten dugu baina oraingo bidea jarraitzen baduzue gizonak elkar jan-
go duzue.

— Lan hau bi gaztek egin dugu, gure asmoa ez da inori buru berotzea baina hemendik urte batzuetara elkar ikusiko dugu eta kanpora begiratzean nega-rrari emanen diogu.

BORDAZAR-ANJEL-MATTIN



«NAFARROA OINEZ 84»



Guziaren gainetik giro onak eta umore ederrak agindu zuten.

Nafar instituzioek euskara baztertzen segitzen dute

Besta eta erreibindikazioak bat eginez, ospatu¹ zen aurten Iruñean, «Nafarroa Oinez 84» bertan bildu ziren 20.000 LAGUNEK, besta giro galanta bizitzeko aukera izan zutelarik. Ikastola Publikoaren Alde, zioen aurtengo «Nafarroa Cinez» en lemak. Alde horretara bideratu² behar baita seguraski, Nafarroako eta Euskal Herriko hainbat ikastolen etorkizun³ iluna. Horrez gain ere, ez zen faltatu egun osoan, errefuxiatuen aldeko aipamenik. Zirkuitoa bera, erdi aroko gaztelu-ziudadela paregabea, horri buruzko pankartaz beterik zegoen, eguerdi aldera manifetsladia ere izan zelarik.

—Hasteko, esango al diguzu nola eta zertarako sortu zen «Nafarroa Oinez»?

—«Nafarroa Oinez» orain dela lau urte sortu zen bere helburu nagusia⁴ Nafarroan ikastolei bultzatzea eta haientzako dirua biltzea izanik. Urte haue-tan barna helburu ideologikoak konkretatu egin dira. Aurtengoa Ikastola Publikoaren Alde lemaz adierazi ahal izan dugu.

—Hau eta antzeko euskararen aldeko herri ekital-dien⁵ antolatzeak ez al du Nafarroako Institutioek euskararekiko duten axolagabekeria⁶ erakusten?

—Hau bistakoa da. Tristeia bada ere, gure hiz-kuntzak instituzio mailan bazterturik segitzen due-la ikusten dugu. Nafar instituzioek euskara aban-donatu dute batez ere horri bultzatzeko garrantziz-ko diren bi puntuetan, alegia, ikastolak eta gau es-

kolak. Hau, bizi behar duenari oxigenoa ukatzea da; euskara ito nahi dute eta honegatik «Nafarroa Oinez» bezalako alternatibak bilatzearen beharra.

—Baina zure ustez euskararen alde eskean ibiltzen segituko al da herrietako bestetan edo ekitaldien bidez ala beste motatako⁷ neurriak erabili beharko dira herri honetako biztanleen⁸ oinarrizko eskubide⁹ hori erreibindikatzeko, hau da, gure hizkuntza ikastea eta erabiltzea?

—Noski, gu herri bat gara eta gure hizkuntza dugu. Euskararik gabe ez dago euskaldunik ez Euskal Herriarik. Ekitaldi eta mobilizapen hauetako alderdi eskalea desagertu behar da eta hori «Nafarroa Oinez» honetan erreibindikatzen dugun eta eskubidez dagokigun Ikastola Publikoa Institutzioek sortzen dutenean gertatuko da.

—Dena dela, Nafarroan alderdi eta erakunde¹⁰ guztiak omen daude euskararen alde, «ollarra» sartuta, gure hizkuntza delako, baina gero jasaten duen tratamendua hizkuntza arrotzarena da. Nafarroan dagoen PSOEn Gobernu berriarekin jokaera¹¹ honetan aldaketarik izanen dela uste duzu?

—PSOEk Estatu osoan darama Euskal Herriaren aurkako politika, eta hemen ez da ezberdina. Nafarroako alderdi eta erakunde guztiek, haietako burkideez gain, behar dute euskara garbi eta egiazki lagundu, bestela Nafarroako historia eta kulturaren traidoreak beste izenik ez dute merezi izango.

—Euskararen hedapenak¹² Nafarroako gero eta sektore gehiagotan euskal kontzientziaren hedapena darama dudarik gabe. Orduan Euskal Herriaren zatiketa mantentzen duten taldeak ez dira kontraesanean erortzen euskara babestu¹³ eta bultzatu¹⁴ nahi dutela diotenean?

—Gauza agiria da euskararen ezagupenak¹⁵ euskal kontzientzia sendotzen¹⁶ eta zabaltzen duela eta horregatik hain zuzen saiatzen da PSOE gure hizkuntza itotzen. Bestaldetik guk ez dugu euskararentzako inolako laguntza ikusi. Zuk aipatu dituzun talde horietan, hala ere horien eta talde politiko guzien betebeharra da gure ustez euskara laguntzea Nafarroan, kontraesan hori izan ala ez izan.

—Eskola, komunikabideak¹⁷ eta administrazioa hizkuntza baten berreuskuratzeko¹⁸ eta bilakaerarako¹⁹; oinarrizko hiru sektore dira. Nola ikusten duzu hauetan Nafarroako erakunde publikoek euskarari ematen dioten tratamendua?

—Nafar Estatutuaren bidez «vascofona» deitutako erreserba batetara mugatzea bazterketa hutsa da; erakunde publikoek euskarari ematen dioten tratamendua zorigaitzekoa²⁰ da. ETBren arazoa aipa dezakegu adibide gisa: PSOEn Gobernuak «aurrera aterako zuela» esan zuen garai batetan, eta badarama sei hilabete zenbait ofizinatako kaioian.

—Orduan nolako jokaera izan dute Institutzioek + Nafarroa Oinez — i buruz beste urteetan, eta zer espero duzue aurten?

—Guk dakigunez Diputazioak ez die inoiz eskakizunei erantzun²¹, bakarrik zenbait erakunde lokaletan izan du oihartzunik²². Aurten erantzun positiboa izango den ala ez, gure ustez, hori egoera politikoak baldintzatuko du. Orain dela gutti PSOeko buruzagiek Euskadirentzat autodeterminazioa galdezka pankartak eramaten zituzten, orduan «oposizio» ziren eta gaur administrazio, baina epe laburrera egoera hori alda daiteke eta euskarak probetxu atera.



Hiztegia:

- 1.— Ospatu: Celebrar.
- 2.— Bideratu: Encaminar.
- 3.— Etorkizun: Futuro
- 4.— Helburu nagusia: Principal finalidad.
- 5.— Ekitalde: Actuación.
- 6.— Axolagabekeria: Desinterés.
- 7.— Mota: Clase.
- 8.— Biztanle: Habitante.
- 9.— Eskubide: Derecho.
- 10.— Erakunde: Organización.
- 11.— Jokaera: Conducta.
- 12.— Hedapena: Propagación, difusión.
- 13.— Babestu: Proteger.
- 14.— Bultzatu: Relanzar.
- 15.— Ezagupen: Conocimiento.
- 16.— Sendotu: Reforzar.
- 17.— Komunikabideak: Medios de comunicación.
- 18.— Berreskuratu: Recuperar.
- 19.— Bilakaera: Evolución.
- 20.— Zorigaitzeko: Nefasto.
- 21.— Erantzun: Responder.
- 22.— Oihartzun: Eco.

«Nafarroa Oinez» en Ttipi Ttapa

*Nafarroa Oinez 84.
Ikastola Publikoaren Alde.*

Herri Ikastola izan da «Nafarroa Oinez»aren antolatzailea aurtengoan. Berau, «Roxapeako Ikastola» eta «Blanca de Navarra» ikastolaren batasunaz sortua dugu. Bi ikastolen batasuna sortu zuen indar giroari esker gairitu dituzte bazter guztietatik datozkien erasoak²³ eta ostikoak. Hala ere beuren estualdi eta pozaldi guztiekin batera, aurrera segitzeko asmo bizian dabilta. Irakaskuntza libre eta partizipatiboagoa lortzeko bidean jo eta ke ari dira lanean. Orain arte hainbat laneri esker lortutakoa sendotu nahian, «Nafarroako Ikastolen Elkar-te»ari aurtengo «Nafarroa Oinez»aren ardura²⁴ eskatzea erabaki zuten, beurentzat besta honek suposatzen duena onartuz eta Nafarroaren bihotzean, hau da Euskal Herriaren hiriburuan, Iruñean, antolatuz. Eta erabaki hori bi helburutan oinarritzen du: ideologikoan eta ekonomikoan hain zuzen.

HELBURU IDEOLOGIKOA

«Nafarroa Oinez» honetarako hartu duten lema-ekin, helburu hau oso ongi mugaturik²⁵ geratzen delakoan daude. Lema, hau da: «Ikastola Publikoaren Alde». Azken batean, hori baita ikastolak bizi duten egoera salbatzeko eta ez dauden herrietan berriak sortzeko bide bakarra. Horra zer dioten: «Gure ustez euskarazko heziketa²⁶ prozesuan normalizazioaren oinarriak jarriak dirateke ikastola publikoak sortu eta indartu ditugunean. Hau dioqu

Lema, hau da: «Ikastola Publikoaren Alde». Azken batean hori baita ikastolak bizi duten egoera salbatzeko eta ez dauden herrietan berriak sortzeko bide bakarra.

- 23.— Erasoak: Ataque.
- 24.— Ardura: Diligencia.
- 25.— Mugatua: Definido.
- 26.— Heziketa prozesua:
Proceso de educación.
- 27.— Baliagarri: Valedero.
- 28.— Eraiki: Construir.
- 29.— Liluragarri: Maravilloso.



zeren posibilitate bakarra ikusten baitugu Nafarroako herri askotan, euskararen irakaskuntza eta irakaskuntza euskaraz herritarrei probetxugarri gerta dakien. Gehien bazterturik diren klaseak gure hizkuntzaz jabetzeko bide egokiena bera izango baita, eta, azkenez, uste baitugu hizkuntzari bere hedaduran eta posibilitateetan lagunduz berreskuratuko¹⁸ ditugula ikastola, eta azken finean, euskarra. Arrazoi guzti hauengandik eta ikastola publikoa ezatearen bokazioarekin kontsekunte garelako, «Ikastola Publikoaren alde gara».

Euskararen irakaskuntza eta irakaskuntza euskaraz herritarrei probetxugarri gerta dakien.

HELBURU EKONOMIKOA

Horra zer dioten honetaz: «Ikastola Publikoaren alde daramagun gatazka helburu hau erresistentziarako baliagarria²⁷ zaigula ikusten dugunez, momentu honetan erresistentzia hau da garrantzitsuena euskal irakaskuntzaren instituzionalizazioa lorpenerako. Lehenetsuna eman behar diogu, garrantzi guttiago dute gauzak geroko utziz, nahiz eta hauek errezagoak izan lortzeko momentu honetan.

Erresistentzia honek berak bortxatzen gaitu edizio berriak eraikitzeko²⁸ posibilitate liluragarria²⁹ baztertera.

Alde batetik bide horrek orain daramagun dinamikara eror eraziko gaitu. Sortuko liratekeen arazo ekonomikoek, ikastoletan gurasook ditugun garrantzizko eta egiazko arazoak aztertzeko, indarra eta denbora kenduko lizkigukete.

Bestaldetik finantziar kostuek ezin bizia sortuko ligukete. Honelako enpresak sortzen dituen zorrak eramango gintuzke ikastola itotzera, ikastola gurasoen eskuetatik talde finantzieroen eskueta pasatuz, kontutan izanik talde hauek ez direla batera euskaltzaleak».

EUSKARAZ ETA KITTO !!

ARGIAREN HARPIDEDUN IZAN NAHI DUT

IZEN DEITURAK

Helbidea


Herria Probintzia

Banku edo Aurrezki Kutxa

Sukurtsala

Zenbakia

SINADURA



ARGIA astekaria
Ramonenea etxea, behea.
Virgen del Carmen, z/g
Donostia (12)
T. 28 33 99



MIKEL AROZAMENA LESAKARRA

KAPI

«Mikel Arozamena Larralde bertsolaria Lesakan jaio zen, Bittiri kaleko Mikelenea etxean, 1930.urteko Abuztuaren 31an, beraren amak esaten duenez, eta 30-an herriko etxeko agiriak dioenez.

Gurasoak ere lesakarrak: Luis eta Maria.

Handik Bordaberrira aldatu ziren. Etxe hori, Bedioko zubia pasa ta herriko sarreran dago, Salbatoreko ermitatik aurreraxeago joan eta eskuineko aldean.

Berak zazpi urte zituelarik, Astigarrara etorri zen familia guztia, eta Ollalume bailarako Arana-eder etxean bizitzen jarri.

Gazterik hasi zen bertsotan, Astigarragako sagardotegietan eta. Geroztik ia igandero hor dabil herriz-herri, etengabeko jardunean. Zenbat bertso kantatu ote ditu honez gero?»

Auspoa argitaletxeak Mikel Arozamenak argitaraturiko liburuari eginiko aurkezpenaz baliatu naiz bera nor zen, azaletik bederen, jakin dezagun.

Mikel Arozamenak bere bertso sail bat publikatu zuen «Nere Aldia» izenburuean. Liburua 1976.eko udan ateri zen kalera aipaturiko argitaletxearen eskutik. Hain xuxen ere bere jaioterriak eskeinitako omenaldia ospatu berria zelarik (urte hartako Maiatzaren 23-an) eta heriotzak berega-

natu baino hilabete batzu lehentxeago.

Oraindik gaztea zelarik, berrogeitasei urtez, bere lanetan zebilela, Azpeitian hil zen ustekabeen 1976-eko Abenduaren 23-an. Berarekin hainbertze aldiz kantatu zuen Xalbador handiak, hil berria, azkeneko bidaia horretan ere laguntzeko erran batio bezala.

Nafarroako txapelduna izan zen zenbait urtez, 1960-tik 1968-era bitarte ospatu ziren txapelketetan parte hartuz. Berarekin aritzen ziren garai hartan Andres Narbarte goizuetarra, Arantzako Batis-ta Madariaga, Moises Jaso, eta bertze mordoxka bat.

Probintzia bakoitzeko txapelduna eta bigarrena pasatzen ziren denbora hartan Euskal Herri mailako txapelketan parte hartzera, eta hori zela ta behin baino gehiagotan aritu behar izan zuen gisa horretan bertze probintziakoekin batera. Horietako batean, erran digutenez, bertsoarik hoberenari zegokion saria eman zioten Donostian, gutti goiti-beiti honela zioen bertsoarekin:

Hemen ondoan dugu
kistoren ibaia
guganaino heltzen da
beraren usaia
urrun ibiliko da
barnean arraia
garbitzeko mutilak
badiegu garaia»

Baina hamalau-hababortz urterekin bertso kantari hasi zenez geroztik, makina bat saio eginga da txapelketetan egin zituenak aparte utzita. Bere liburuen aurkezpen hitzetan garbi adierazten zaigu «ia igandero hor dabil herriz-herri eten gabeko jardunean».

Bertzalde eta horretaz gainera bertsoak paratzea ere gustatzen zitzaion, eta badakigu horietako batzuk « Principe de Viana» aldizkarian argitaratu zituela. Era horretan eginiko zenbait, aipatu dugun «Nere aldia» liburuan aurkituko ditugu eta hek irakurritz gozatuko zarete bertsozaleak.

Hil ondoren omendua izan zen Xalbadorrekin batera Iruñeko Gayarre antzokian. Lerro hok gure omenaldi xumea izan nahiko lukete, horren abudo adio erran zigun Arozamenarentzat.

Han-hemenka eskribituta edota grabaturik utzitako bertsoak ditugu azken finean bera, bertsolari bezala, izan zenaz ohartarazteko biderik xuxenena. Lastima ez edukitzea orain eta hemen gurekin! Zer ikasi badugu ta irakasle honak ez dira sekula sobran izaten!

Hondarreko honatx hemen bere liburutik ateritako bertso batzuk. Lesaka eta Bidasoaren bazter hotako aideak Arozamenaren dohaiez kutsa daitezzen.

TXANTXANGORRIA

- 1/ Txori txiki polit bat
ezagungarriya,
Jaunak mundu onetan
guretzat jarriya;
bire-baztar guztitan
azaltzen da iya,
bakarrikan bazuaz
zure gidariya,
beti olakoxia
da txantxangorriya.
- 2/ Kristabari laguntzen
goiz ta illuntzian,
txio ta txio dabil
birian ertzian;
pixka bat ixiltzen da
sasira sartzian,
bañan azaldutzen da
iñor gelditzian,
gustora artzen baitu
zerbait botatzian.
- 3/ Ain dira polit eta
ain dira txukunak,
eiztarien tartian
dituzte jardunak;
tirorik gabe pasa
badira egunak,
txantxangorriai tira
eiztari lizunak;
or ere pagatzen du
kulparik eztunak.
- 4/ Udaberrin kabia
pozik du asitzen,
bire-pendoitz batian
goroldio biltzen;
kuku zarrak arraultza
or dio jarritzen,
txikia izanagatik
ezta errukitzen,
gixaixuak ederki
ikasten bizitzen.
- 5/ Arraultza jarri eta
aldegin igesi,
bestek lanak eginda
bera lasai bizi;
txantxangorrin beruan
jaio eta azi,
gero-zer egiten dun
nai bada ikasi:
ume txikik botata
kukua nagusi.

NERE JAIOTERRIA

- 1/ Naparrua'ko erri bateri
jartzera nua bertsuak,
danak merezi ditun erria,
ain ditu txoko goxuak;
pake santuan bizitzen dira
lau aldetako auzuak,
baña zer pentsatutzen ote du
Ama Euskara gaxuak?
- 2/ Izenez deitzen zaio Lesaka
esan nai nuen erriya,
dana mendiaz inguraturik
ortxe daukagu jarriya;
bertan jaiua dan batentzako
ikustia pozgarriya,
nik ere ortxe ikusi nuan
lendabiziko argiya.
- 3/ Zazpi urtekin aldegin nuan
ezagun danak utzita,
baña ni sortu nitzan erriaz
beñere ez nago antzita;
gure euskera ordun zegoan
guztia lorez jantzita,
baña negarra gaur egin leike
ainbat erdara ikusita.
- 4/ Aitan aldeko aitona nuan
Lesaka'n jaio ta aziya,
eta amona berriz omen zan
Sunbilla'tik etorriya,
Erreuteneko basarri ortan
ezkondu eta jarriya;
eta bertatik mugitu gabe
azi zuten familiya.
- 5/ Nere amaren aita ta ama
biak ziran Lesakarrak;
oik bezelaxe asko izan dira,
noski eztira bakarrak;
lau seme ta lau alaba azitzen
egin zituzten indarrak,
asko ez baña oraindik ere
badira Sueltotarrak.
- 6/ Lesakar batek bertso batzuek
guztizko borondatian,
berriz bisita bat egingo det
orrelakoren batian;
nere kabia ikusitzen det
Lesaka aldera juatian,
ordu goxuak pasatzen ditut
nere sorterri maitian.



ELIZONDO'KO JAIA

- 1/ Ilbeltzak amabosta
igande eguna,
Elizondo ortara
salto egin deguna;
beste iru lagunekin
nintzan aruntz juna,
ai zer egualdia
tokatu zaiguna!
- 2/ Otza aundia zegoen
egunsentitikan,
alare juan giñan
aruntza pozikan;
Elizondo'n eztago
lagunan faltikan,
ondo portatzen dira
oik aspalditikan.
- 3/ Uztapide, Lasarte
ta Lazkao-Txiki,
zein izandu giñaden
goguan eduki;
Arozamena oiekin
moldatzen da egoki,
alkar zirikatuz
aitu gera ederki.
- 4/ Ordu t'erdi inguru
aritu giñanak,
egiñ arte agindu
zizkiguten lanak;
Izeta ta Klemente
agintzeko juanak,
pozik egin giñuzen
esandako danak.
- 5/ Elizondo'ko jende
ta ingurukuak,
egun artan poliki
aruntz juandakuak,
urtez elduak eta
gazte sasoikuak;
oraindikan badaude
gure modukuak.

PETISUISAK

Petisuisak egiteko hau behar da:

- Baso erdi ur.
- Baso erdi olio.
- Gatza pizka bat.
- **Hirina** (baso hori neurri bezala erabiliz) baso bat
- Hiru arraultz.

Eta honela egiten da: Ontzi batetan ura eta olioak irakiten paratu irakiten asten denean hirina bota eta nahasiz sutatik kendu. Ondoren banan bana arraultz irabiatuak bota eta legamia (royal edo antzekotik) pizka bat geroxeago. Dena ongi nahasi ondoren labeko erretiluan edo. moltxoka paratu. Eginak daudenean atera eta krema sartu.



Krema egiteko hau behar da: 6 arraultz, 7 koila-
rekada azukre, eta litro bat esne.

Arraultzei azukrea nahasi, esnea irakiten paratu eta arraultz eta azukrea botaz eta nahasiz krema egiten da.

GOGORTZEKO OGIAK

Aspalditik ziren bi gizonak adiskide. Eta edozein arazotaz elkarren artean mintzatzeko konfidantza haundia zuten. Horrela aurkitu ziren egun batez kalean.

- Kontxo, Antton. Zer moduz habil?
- Ba, ondo esan beharko.
- Eta «beste horretan» zer, e? Zer moduz? Moldatzen al haiz edo?
- Ño! Badiat zenbait arazo...
- Beldurrik gabe hitz egin ezak, mutil, ahal dudan neurrian lagunduko diat.
- Prolema haundia, gizona: ez zaidak gogortzen.
- Ez zaiala... alegia...





— Ezta mugituere, gizona.

— Horrek erremedio erreza zeukak: ogi kozkorrak jan eta berehala hasiko zaik gogortzen.

Hurrengo egunean hor doa gure laguna okindegira eta hamabost ogi-barra eskatu ditu. Beste ezagun batek ikusi du eta:

- Zer, gonbiteren bat ala?
- Ez motell, neretzat dituk denak.
- Horrenbeste ogi? Gogortuko zaik!
- Arraioa! Hi ere enteratu al haiz!





HORTZAK

Hortzak otordu bakoitzaren ondoren garbitu egin behar dira.

Elikadura sana egin eta goxo gauza gutti jan.

Hortzak ez dira horizontal zentzuan eskubilatatu behar.

Hortzen garbiketa modu honetan egiten ahal da:

1.— Goi aldeko hortzak eta haginak goitik behera eskubilatuz.

2.— Behe aldekoak, behetik gora eginez.

Garbiketa egiterakoan hau lortu behar da:

Hortzak eta haginak janari hondarrik gabe gelditzea.



NIRE AITAREN ETXEA

Nire aitaren etxea
defendituko dut.
Otsoen kontra,
sitatearen kontra,
lukurreriaren kontra,
justiziaren kontra,
defenditu
eginen dut
nire aitaren etxea.
Galduko ditut
aziendak,
soloak,
pinudiak,
galduko ditut
korrituak,
errentak,
interesak,
baina nire aitaren etxea
defendituko dut.
Armak kenduko dizkidate,
eta eskuarekin defendituko dut
nire aitaren etxea,
eskuak ebakiko dizkidate,
eta besoarekin defendituko dut
nire aitaren,
besorik gabe,
bularrik gabe
utziko naute,
eta arimarekin defendituko dut
nire aitaren etxea.
Ni hilen naiz,
nire arima galduko da,
nire askazia galduko da,
baina nire aitaren etxea
iraunen du zutik.

(Gabriel Arestiren olerkia)



Begiak zabalik
eta ezin ikusi
zuek barrutik
guk kanpotik

Belarriak erne
eztarriak zorrotz

Ze hurbil eta zein urruti
egon garen danok

Indarra, negarra, malkoak
gorrotoa kanporatu dugu
denon artean anmistia
osatu nahiean

gaur denok batera
zer izango da bihar?

ASKAMIN

DENBORARI JARRITAKO BERTSOAK



(Bertsu hauen doinua: Maritxu nora zoaz...)

1. Haizeetan ostoa
inondik inora
gisa hortan ibilko
nintzeke gustora
Besoak zabaldurik
bera ete gora
Bainan falta zaidak
hortako denbora

2. Denbora nagusi da
gizonen munduan
Horren menean gaude
uda eta neguan
Jende lasairik ezda
ia nere inguruan
Denboraretik ihesi
nahi nuke joan

3. Ihesi nahi bainan
hori ezin lortu
kate lodi batekin
bagaituzte lotu
Malloarekin jo ta
erlojua lehertu
edo bertzela hobe
denborik ez neurtu

4. Eguzki eta ilargi
hor dabiltz bueltaka
lehengo zarrak ziren beti
hori begiraka
Gero erlojua asmatu
ta orain tiki-taka
ez al gera munduan bizi
sobera piska

5. Denborarekin burrukan
harek du nabala
eta guk ezin eskautu
lehen erran bezala
ez badiot harrapatzen
beste martingala
etzinta egoteko dago
arbolaren itzala

6. Zazpi egunean *berrie*
osaten da astia
lau aste t'erdi eginta
da ilabetia
Dozena bat ile pasata
hor dugu urria
lege honekin zahartzen da
muttiko gaztea



7. Jendea zahartzen da
konturatu gabe
Lanak ta diruak dira
gizon aunitzen jabe
Lasaiago bizitzea
ez al dugu hobe
Lanean ta aberatsa baino
nahiago da pobre

8. Gizarte honetan dugu
burua nahasi
ustekabean mundua
izortu dugu kasi
irtenbideak bilatzen
hobe dugu hasi
animalieie begitu
eta ongi ikasi

9. Animaliek beti
daukate patxada
tripa betetzeko haina
janarikan bada
Tresnarik behar ez dute
zertarako traba
gauz asko emanen
nioke altzurkada

10. Denbora gaitaz harturik
iritzia azaldu
bertso hok nahiko merke
beharko ditut saldu
gehiago segitzea
bererikan al du
Denak leitu badituk
denbora duk galdu.

Jose Juan



HEMEN HERRI TXIKI BAT DUGU.....



BETIKOA „ISTORIOEN HASIERAN ERROMATARRAK !!!




BENO, JARRAITUKO DUGU, BERE ARBASOEN OHITURAK MANTENTZEN ETA
MAITATZEN DUN HERRIXKA NEKAZARIA, PAKETSUA BATEZ ERE.....

**ENPERAEZINEZKO
HERRI BATEN
ISTORIOAK**
(JARRAITUKO DU)



EGIA ESAN. BATZUTAN EZ HAIN PAKETSUA.



Zerbait erran nahi baduzu
eta zure iritziak, asmoak
edo marmariak argitaratzeko
desiratzen bazaude
bidat itzazu zure
keinu krudelak
"Ttipi-Ttapa"-ra
Egin dezagun Ttipi-Ttapa
denon aldirkaria
Helbidea: Euskealduna Olatua Bera

TTiPi - TTAPA